

## IDENTITATETIK ERABILERARAKO BIDEA ARIZMENDI IKASTOLAN

Arizmendi Ikastolan euskalgintzan bizi dugun kezka beretik abiatu ginen duela bost urte inguru: gure ikasleen artean euskararen ezagutza eta erabileraren artean amildegi bat dago.

Kezka honetatik abiatu ginen baina 16 orduko tailer baten ostean ondorio honetara iritsi ginen: gure haur eta gazteek euskara naturaltasunez ez bizitzea sakonagoa den arazo baten sintoma baino ez da. Arazoa identifikazio mailakoa da, eta horri lotuta, identitate mailakoa. Geure gazteen identitate indibidual eta kolektiboaren eraikuntza bide hori ez dago euskararen ardaztua. Beraz, gure egiteko zuzena ez da euskara gehiago erabil dezaten lan egitea baizik euren identitatea modu kontzientean eraikitzen laguntzea eta identitate hori euskararen ardaztuta egoteak duen garrantziaz jabetzen laguntzea.

Gogoeta honetatik sortu zen egun Arizmendi Ikastolan martxan dagoen Bazara egitasmoa. Gure helburua, beraz, ez da geure ikasleek euskara gehiago erabil dezaten lortzea baizik euskaldun izateko hautu kontzientea egingo duten pertsonak garatzen laguntzea. Beste era batera esanda, guk nahiko genuke geure ikasleek euskara gehiago erabiltzea, euskara bizitzeko hautua egitea herri eta kultura baten parte sentitzen direlako eta hizkuntzaren osagaia hortik kanpo utziz gero gutasunaren lokailua galdu egingo litzatekeelako.

Arizmendi Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren muinean identitate indibidual eta kolektiboaren lanketa jarri ditugu. Eta lehen esan dugun bezala, Bazara Ikastolan gure identitate kolektiboa eraikitzen laguntzeko egitasmoa da. Baina, esan nahi du horrek? Nola egiten ari gara hau?

**Ikastola gara** eta **kooperatiba gara**. Honek ezaugarri jakin batzuk ematen dizkigu eta hauek era kontzientean bizi eta landu nahi ditugu Ikastola osatzen dugun partaide guztiekin (ikasleak, gurasoak, irakasle-langileak).

Horretarako, **bost eduki-bloke lantzen dihardugu**:

1. Euskal identitatea eta euskal kultura
2. Munduko identitateak eta kulturak

3. Hizkuntza jarrerak
4. Ikastola izaera
5. Kooperatiba izaera

Bazarak bost urteko ibilbide laburra du Ikastolan. Ibilbide honetan apurka-apurka sarea osatzen joan da eta une honetan egitasmoa koordinatzeaz arduratzen diren bi lagunez gain (Aitor Elizaran eta Amaia Antero), Bazarako irakasle erreferenteak daude gune eta etapa guztietan eta ikaslez osatutako bi Bazara Batzorde daude martxan DBHn eta Batxilergoan.

Ikastolako etapa guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa) eragiteko ekintza-plan desberdinak daude baina ikasturte honetan Arizmendik urrats kualitatibo garrantzitsua eman du Bigarren Hezkuntzan:

- **Bazararen bost eduki-blokeak modu sekuentziatu batean lantzeko urteko osoko programazioa 12 urtetik 18 urtera.** Hiruhilabetean behin ordubeteko saioak egiten ditugu Bigarren Hezkuntzako gela guztietan eta horretarako formatu ezberdinak erabiltzen ditugu: gehienetan Bazarako koordinatzaile biak sartzen gara, bestetan Bazara Batzordeko ikasleak eurak dira saioak dinamizatzen dituzten euren ikaskideekin eta kasu batzuetan kanpoko erreferenteak ekartzen ditugu (urrian, adibidez, Garabideko Truke-programaren bidez etorritako 12 indigena sartu ziren saio hauek ematera). Eragin-esparru garrantzitsua iruditzen zaigu hau 800dik gora ikaslerengana iristen baikara formatu honen bidez.
- **DBH eta Batxilergoko Bazara Batzordeak:** DBHko Bazara Batzordean 30 ikasle-ordezkarik ditugu eta Batxilergokoan berriz, 35. Ikasle hauek gainerakoek baino formazio espezifikoa jasotzen dute Ikastola eta Kooperatibari lotutako gai ezberdinen inguruan, harremanetan jartzen ditugu antzerako kezka eta ilusioak dituzte beste ikastolaren batekin eta Arizmendin duten funtzio eragileaz jabe daitezzen bilatzen dugu jarduera ezberdinen bitartez.



- **Ikastolako monitoritza-eskolako ikasleen formazio-planaren barruan ikuspegi identitario eta kooperatiboa.** Ikastola barruan monitoritza-eskola propioa daukagu eta asko indartu da azken urteotan eta azkenaldian 90 ikasle inguru ditugu formazioa jasotzen. Garrantzitsua iruditzen zaigu

aisialdiko formazio honetan dabilen ikasleengan ere ikuspegi honetatik eragitea.

BHn martxan jarri dugun geletako saioen formatuarekin Lehen Hezkuntzarako jauzia egiteko lehen urratsak ematen ari gara une honetan. Etapa honetara egokitutako diseinua eginda daukagu baina ditugun baliabideak mugatuak dira eta une honetako aukeretara egokitutako planteamendua aztergai dago une honetan Ikastolan.

Haur Hezkuntzan berriz, gurasoen eremuan eragiteko beharra eta aukera ikusten dugu, batez ere familiako hizkuntza-ohiturek haurren jarrera eta erabileran duen eraginaz jabe daitezen eta hurrengo ikasturtean gai honi heldu nahi diogu.

Lanbide Heziketako etapan gure Ikastola eta Kooperatiba izaera azaltzeko saio bat egiten dugu 1.º mailan hasten diren ikasle guztiekin ikasturte hasieran egiten den harrera-planaren barruan eta horrez gain, ikasketetatik lan mundurako jauzi horretan euren hizkuntza portaeren inguruan oinarritzko gogoeta egin dezaten bultzatzen dugu.

Ikasleekin egiten dugun zuzeneko esku hartzeaz gain, irakasleekin Bazararen bost eduki-blokeak lantzeko formakuntza-plana dugu martxan.

Bestetik, aipatzekoa izan daiteke Bagara bailarako egitasmo edo prozesu berri honetan Arizmendik hartu duen erantzukizunaren barruan, Bagara eta Bazararen artean sortzen ari diren eta etorkizunean sortuko diren lotura naturalak. Bagararen hezkuntza atalaren barruan planteatzen diren lan-esparruen artean *hezkuntza identitarioa eta hezkuntza kooperatiboa* daude eta bat egiten dute honetan, bete-betean, Bazarak Ikastolan duen egitekoarekin. Etorkizunean elkarrekin lan egiteko nahia eta beharra daukagu.

Ez dugu uste ezer berririk esaten ari garenik baina aldea, akaso, arretagunean egon liteke. Non jarri begia, erabileran ala identitatearen lanketan. Ñabardura garrantzitsua dela intuitzen dugu Guztiok dugu GU eta NI izateko beharra, gutasunean ni eta nitasunean gu eta nerabeek are gehiago. Barne borroka horretan bizi dira. Euren identitatea eraikitzen ari diren tarte “kritiko” horretan konekta dezakegu eurekin, baina ez erabileraren inguruko diskurtso arauemailetatik,

gutasun propio eta original bat eraikitzeko aukera eta erronkatik baizik. Intuizioz ari gara, probatzen ari gara.

*Txaro Iraeta* (Arizmendi Ikastolako kudeatzaile orokorra) eta *Amaia Antero Intxausti* (Arizmendi Ikastolako Bazara egitasmoaren dinamizatzailea)